16-19 urte bitarteko ikasleentzako jarduerak

## Folio lan

# 1.GO URRATSA: AUTOKONTZIENTZIA ESPLORATZEA

Co-funded by the European Union

TOGETHER FOR CHANGE

# 1.go urratsa: Autokontzientzia esploratzea

## Zer da garrantzitsua eta preziatua nere bizitzarako?

### Erantzun itzazu galdera hauek:

1. Ba al dira niretzat bereziki esanguratsuak diren pertsona bereziak (agian "heroi" bat, neska edo mutila) liburu, film edo serieetan (edo bizitza errealean!) estimu handitan ditudanak? Zergatik gustatzen zaizkit (edo are gehiago: zergatik miresten ditut)?

2. Ba al dago zerbait beste pertsonei buruz bereziki gogaitzen nauenik? Zerk kezkatzen nau horretaz?

3. Imajina ezazu altxor-kutxa bat duzula, non pertsona, leku, objektu, sentsazio, usain edo esperientziak gorde ditzakezun, zure familiarekin, lagunekin, zure auzoan edo hirian bizi izandakoak zuretzat garrantzitsuenak direnak. Zer gordeko zenuke? Idatz ezazu zerrenda bat 10 gauzarekin altxor bat bezala gorde nahiko zenituzkeena.

Co-funded by the European Union



TOGETHER FOR CHANGE

# 1.go urratsa: Autokontzientzia esploratzea

## Bideoa ikusi ondoren, egin zure ikasleei galdera hauek

Zer itxaropen eta amets ditu Mary/Katek bere etorkizunerako?

Zertan dira zurearen antzekoak edo desberdinak?



Ezagutu duzu Hiba eta/edo Kateren migrazio istorioa eta etorkizunerako ametsak. Baina zure familiaren migrazio istorioa ezagutzen al duzu? Zein da?

# 1.go urratsa: Autokontzientzia esploratzea

## Hausnarketa ariketa-praktikoa

Aurkitu irudi/argazki bat zuretzat bereziki baliotsua dena eta galdu nahi ez duzun zerbait edo norbait irudikatzen edo sinbolizatzen duena. Gehitu azalpen-esaldi labur bat koadroari.

Aurkitu zure etorkizunerako ametsetako bat irudikatzen edo sinbolizatzen duen irudi/argazki bat. Gehitu azalpen-esaldi labur bat koadroari.

Idatzi interesa pizten dizun galdera bat errefuxio/migrazioaren gaiarekin eta etorkizuneko ametsekin zerikusia duena.

Co-funded by the European Union

16-19 urte bitarteko ikasleentzako jarduerak





## Folio lan

# 2. URRATSA: INFORMAZIO KRITIKOA JASOTZEA ETA TRATATZEA

Co-funded by the European Union

TOGETHER FOR CHANGE

# 2. urratsa: Informazio kritikoa jasotzea eta tratatzea

TASK

## Zer esan nahi dugu migrazioaz hitzegiten dugunean?



Zer da migrazioa? Migratzaile izateko herrialde bat (Estatu bat) uztea baldintza da? (muga bat zeharkatzea)

Zertan datza behartutako migrazioa? Zein egoeratan bihurtzen da errefuxiatu bere herrialdetik ihes egiten duen pertsona? Zer esan nahi du aberrigabea izateak?

Zer da 1951ko Errefuxiatuen Konbentzioa eta zergatik da esanguratsua ikuspegi juridikotik?

Zure herrialdetik beste batzuetara migrazioa behartua eragin duen eskala handiko kasuren bat ezagutzen duzu? Zeintzuk izan dira zergatiak?



Co-funded by the European Union

TOGETHER FOR CHANGE

# 2. urratsa: Informazio kritikoa jasotzea eta tratatzea

TASK

## Zer arrazoik eraman lezake pertsona bat bere herrialdetik migratzera edo ihes egitera?

Herrialde batetik ihes egiteko arrazoi batzuk hainbat arazorekin lotuta egon daitezke, hala nola politikarekin, klimarekin, generoarekin, erlijioarekin eta ekonomiarekin. Bururatzen al zaizu beste arrazoirik? Identifikatu herrialde bakoitzeko adibide bat.

Harremanik ikusten duzu zure bizimoduaren edo zure herrialdeko egoera politikoaren eta migrazioaren arrazoien artean? Zer neurri har daitezke behartutako migrazioa eragiten duten faktoreak murrizteko?



Co-funded by the European Union

# 2. urratsa: Informazio kritikoa jasotzea eta tratatzea

TASK

## Zeintzuk dira datu eta estatistika garrantzitsuenak?

Zenbat pertsona desplazatu zituzten mundu osoan 2023an? Zenbat ziren umeak? Zenbat ziren emakumeak? Zein herrialdek hartzen ditu errefuxiatu gehien?



Zenbat pertsonak eskatu zuten asiloa Europar Batasunean 2023an? Zenbat gizabanakok egin zuten ihes gure herrialdera 2023an?

Horietatik, zenbat joan ziren beste herrialde batera? Zein herrialdetakoak dira gure herrialdean asiloa eskatzen duten errefuxiatuak?

Zure herrialdetik beste batzuetara migrazio behartuko kasuren bat izan al da historian zehar? Horrela izan bada, zenbat pertsona utzi zuten gure herrialdea eta zein herrialdetara joan ziren?

Co-funded by the European Union



TOGETHER FOR CHANGE

# 2. urratsa: Informazio kritikoa jasotzea eta tratatzea

## Hausnarketa ariketa praktikoa



- Laburbildu zure aurkikuntzak: Zein informazio aurkitu zenuen galdera bakoitzari buruz?

- Identifikatu bitxikeriak: Egin ezazu zerrenda bat ikerketan zehar sortu zaizkizun 5 galderekin

- Perspektibei buruz hausnartu: Nola egiten dute bat edo ez zure aurkikuntzk taldeko kide bakoitzak gaiari buruz aldez aurretik zituen perzepzio edo ezagutzekin?

## 2. urratsa: Informazio kritikoa jasotzea eta tratatzea

# Hausnarketa ariketa praktikoa



» Zer da berria eta harrigarria niretzat?

» Jasotako mota desberdinetako informazioek zer sentipen dakarkidate?



Co-funded by the European Union

16-19 urte bitarteko ikasleentzako jarduerak



## Folio lan

# 3. URRATSA: PERSPEKTIBAK ALDATUZ

Co-funded by the European Union

TOGETHER FOR CHANGE

# 3. urratsa:
# Perspektibak aldatuz

## Elkar topo egiten, partekatzen eta ikasten dugu

Bere historia kontatzen ari den bitartean, ze emozio eta sentimendu adierazten ari da pertsona?

Zer esperientzi eta itxaropena helarazten ari da?

Zer da gehien hunkitu edo barrutik mugitu nauena?

Nola sentitzen naiz ni pertsona honen historia entzuten edo irakurtzen dudanean?

Zein da nire dezioa pertsona onentzat? Zer opa diot?



Co-funded by the European Union

# 3. urratsa: Perspektibak aldatuz

## Hausnarketa ariketa praktikoa

- Bilatu ezazu itxaropena irudikatzen duen irudi edo argazki bat.
- Idatz itzazu bi desio beren herrialdeak uztera behartuak izan diren pertsonentzat.
- Pentsa ezazu zein izan litekeen zure ekarpena, bai txikia edo handia, desio horiek egia bihur daitezen.



Co-funded by the European Union



16-19 urte bitarteko ikasleentzako jarduerak



## Folio lan

# 4. URRATSA: JUDIZIO ETA BALORAZIOAK ERATZEA ETA IRUDIKATZEA

Co-funded by the European Union

TOGETHER FOR CHANGE

# 4. urratsa:
# Judizio eta balorazioak eratzea eta irudikatzea

**Ikusle-entzuleak:**

Zertaz ohartu gara?
Ze estrategia jarraitu zituzten parte-hartzaileek?
Gizabanakoren bati buruzko aurreiritzirik adierazten al zuten?
Zein eskubide eta betebehar aipatu ziren errefuxiatuekin eta tokiko pertsonekin erlazionatuta?
Zein argudio iruditu zaizkit sinesgarriak eta zein ez hain sinesgarriak?
Elkar ulertzea lortu zen edo parte hartzaile batzuek eztabaida menderatu zuten?
Taldean/komunitatean jolasteko/elkarrekin bizitzeko zer kontzeptu geratu ziren agerian?





**Mahai-inguruko partaideak:**

Nola sentitu naiz nire rolean?
Nola sentitu nintzen "bizitza errealean" partekatzen ez dudan jarrera bat irudikatzen, hala badagokio?
Besteak konbentzitzeko gai nintzen? Hala bada, nola?
Gai bati buruz nire iritzia aldatu dut? Hala bada, zergatik?
Pozik al nago prozesuarekin eta emaitzarekin? Hala ez ba da, zer falta zait edo zer da gogaitu nauena?
Berriro eztabaidarik izango banu, nola aurkeztuko nituzke nire argudioak? Nola kokatuko nintzateke eztabaidatutako gaiei buruz?

## 4. urratsa:
## Judizio eta balorazioak eratzea eta irudikatzea

# Hausnarketa ariketa praktikoa



- Idatz itzazu, edozein herrialdetako haurra izanik, inola ere uko egin nahi ez zeniekeen hiru eskubide garrantzitsuenak.

- Aurkitu ezazu objetu edo simbolo baten irudia eskubide horiek irudikatzen dituena.



Co-funded by
the European Union



16-19 urte bitarteko ikasleentzako jarduerak



## Folio lan

# 5. URRATSA: AURREIRITZIEI AURRE EGITEA

Co-funded by the European Union

# 5. urratsa: Aurreiritziei aurre egitea

## Agian uste duguna baina gehiado erkide dugu

### Hausnarketarako galderak:

- Inoiz sentitu al naiz "etiketatuta" (nor bere nortasuna edo potentziala mugatzeko moduan kategorizatuta) elkarren arteko antzik ez genuela uste zuen norbaitengatik? Nola erreakzionatu dut?

- "Etiketa jarri" diet al diet noiz beste pertsona batzuei, erabat desberdinak ginela uste izanda? Zein izan ziren nire sentimenduak eta erreakzioak?

- Konturatu al naiz noizbait nik "etiketatutako" norbait uste baino antza gehiago zeukala nirekin? Nola ohartu naiz honetaz?



Co-funded by the European Union

# 5. urratsa:
# Aurreiritziei aurre egitea

## Orokortasunak eta aurreiritziak: Nola egin aurre?

### Hausnarketarako galderak:

- Ba al dut esperientziarik besteek "istorio bakar" batean oinarrituta definitzen nautela? Hala bada, zein istoriotara mugatu naute? Nola bizi izan dut hori eta nola erantzun dut?
- Besteekiko elkarrekintzei buruz hausnartzen dudanean, beste norbait istorio bakarrera mugatu al dut? Horrela bada, nola zuzenduko dut?
- Zerk laguntzen dit burua zabalik edukitzen eta besteei buruzko hainbat istorio onartzen? Zer egin dezakegu estereotipoek diskriminazioa eragin ez dezaten?


Co-funded by the European Union

# 5. urratsa: Aurreiritziei aurre egitea

## Hausnarketarako ariketa praktikoa



Idatz itzazu hiru baieztapen zeure buruari buruz, uko egingo zeniokeenak ez zaituztelako zehatz-mehatz deskribatzen edo zure indibidualtasuna errespetatzen ez dutelako.

Co-funded by the European Union



TOGETHER FOR CHANGE



16-19 urte bitarteko ikasleentzako jarduerak



Folio lan

# 6. URRATSA: NEURRIAK HARTZEA / EKINTZAN SARTZEA

Co-funded by the European Union

TOGETHER FOR CHANGE